



2010/09/21(e)ko prentsa-oharra

ETXEGINTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EDYVI)

2010eko 2.


hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeko aurreikuspenak gora egin du 2010eko bigarren hiruhilekoan.

2.225 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da, iazko bigarren hiruhilekoan baino 287 gehiago (% 14,8 gehiago), eta aurreko hiruhilekoan baino 1.317 gehiago (hau da, % 145 gehiago).

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2010eko bigarren hiruhilekoan aurreikusi denez, oin berriko 2.225 etxebizitza eraikiko dira, iazko denboraldi berean baino % 14,8 gehiago, eta 2010eko lehen hiruhilekoan baino % 145 gehiago.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2010.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



Gipuzkoan (899 etxebizitza) Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusita dagoen oin berriko etxebizitzaren % 40,4 eraikiko dira. 2009ko hiruhileko berean aurreikusitako oin berriko etxebizitzak baino % 34 gehiago dira eta aurreko hiruhilekoari dagozkionak baino % 117,1 gehiago.

Atzetik Araba dator 791 etxebizitzarekin, hau da, bigarren hiruhilekoan aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren guztizkoaren % 35,6arekin. Lurralde horretan izan da aurreikusitako etxebizitzaren hazkunde handiena, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 184,5 gehiago) eta iazko hiruhileko berean baino % 30,7 gehiago.

Bestalde, Bizkaian oin berriko 535 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da (guztizkoaren % 24), aurreko hiruhilekoan baino % 147,7 gehiago, baina 2009ko bigarren hiruhilekoan baino % 19,2 gutxiago.

Arabako Lautadan Araban aurreikusita dauden oin berriko etxebizitzaren % 96,3 daude, Bilbo Handian Bizkaiko % 61,5 eta Donostialdean Gipuzkoako % 47,1.

Aurreikuspenen arabera, Gasteizen oin berriko 759 etxebizitza eraikiko dira, hau da, Autonomia Erkidego osoko % 34,1 eta Arabako % 96; jarraian Donostia dago, 277 etxebizitzarekin – Autonomia Erkidegoko % 12,4 –, baita Hondarribia ere, 195 etxebizitzarekin – % 8,8 –. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 56etan – 5etik batean pasatxo – aurreikusten zen etxebizitza berriak eraikiko zirela.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 185 birgaitzeak 2009ko hiruhileko berean izandako birgaitzeak baino % 9,3 gutxiago izan dira; aldiz, aurtengo lehen hiruhilekoan izandakoak baino % 3,4 gehiago dira.

EAEko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua % 40,9 igo da 2010eko bigarren hiruhilekoan, betiere kopuru hori 2009ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoera-adierazle gisa erabili ohi da) 741ra igo zen 2010eko bigarren hiruhilekoan.

Hamarretik zazpi baino gehiago – % 73 – birgaitze-lizentziak dira, oin berriko eraikinak % 25 dira eta % 2 bereziki eraisteko lizentziak dira – guztira 15 –.

Bizkaian obra handiko 354 lizentzia daude, Arabako 256 lizentzien eta Gipuzkoako 131 lizentzien gainetik. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 33,6 dira, eta Arabaren eta Bizkaiaren kasuan, aldiz, % 23,8 eta % 22,6 dira, hurrenez hurren.

Bizkaian lizentzien guztizkoa % 71 igo da 2009ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 60,9 ere bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Araban obra handiko lizentzien kopurua % 29,9 igo da iazko hiruhileko berarekin alderatuta, eta % 13,8 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Azkenik, Gipuzkoan lizentzien kopurua % 7,4 igo da 2009ko bigarren hiruhilekotik 2010eko bigarren hiruhilekora, eta aurreko hiruhilekoan emandakoekin alderatuta, % 24,8.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berria

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Bilbo Handian Bizkaiko lizentzien % 69,8 eman dira, eta ehuneko hori Arabako Lautadak Arabarekiko duen ehunekotik – % 65,6 –, hurbil dago; aitzitik, Donostialdean Gipuzkoako lizentzia guztien % 38,9 eman dira.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2010ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	741	100.0	191	34.7	215	40.9
	Oin berriko eraikinak	185	25.0	24	14.9	31	20.1
	Birgaitzeak	541	73.0	171	46.2	181	50.3
	Eraispenak	15	2.0	-4	-21.1	3	25.0
Araba	Guztira	256	100.0	31	13.8	59	29.9
	Oin berriko eraikinak	61	23.8	1	1.7	-3	-4.7
	Birgaitzeak	191	74.6	34	21.7	63	49.2
	Eraispenak	4	1.6	-4	-50.0	-1	-20.0
Bizkaia	Guztira	354	100.0	134	60.9	147	71.0
	Oin berriko eraikinak	80	22.6	17	27.0	38	90.5
	Birgaitzeak	271	76.6	124	84.4	109	67.3
	Eraispenak	3	0.8	-7	-70.0	0	0.0
Gipuzkoa	Guztira	131	100.0	26	24.8	9	7.4
	Oin berriko eraikinak	44	33.6	6	15.8	-4	-8.3
	Birgaitzeak	79	60.3	13	19.7	9	12.9
	Eraispenak	8	6.1	7	700.0	4	100.0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	2,410	100.0	1323	121.7	268	12.5
	Oin berriko eraikinak	2,225	92.3	1317	145.0	287	14.8
	Birgaitzeak	185	7.7	6	3.4	-19	-9.3
Araba	Guztira	833	100.0	499	149.4	96	13.0
	Oin berriko eraikinak	791	95.0	513	184.5	186	30.7
	Birgaitzeak	42	5.0	-14	-25.0	-90	-68.2
Bizkaia	Guztira	602	100.0	339	128.9	-88	-12.8
	Oin berriko eraikinak	535	88.9	319	147.7	-127	-19.2
	Birgaitzeak	67	11.1	20	42.6	39	139.3
Gipuzkoa	Guztira	975	100.0	485	99.0	260	36.4
	Oin berriko eraikinak	899	92.2	485	117.1	228	34.0
	Birgaitzeak	76	7.8	0	0.0	32	72.7

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: *Edurne Domingorena*

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>

WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>